

# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA SAILA

### 1497

*EBAZPENA, 2017ko otsailaren 13koa, Ikastetxeen zuzendariarena, Eibarko Hezkuntza Esparruko Egoitza Zentroan 2017-2018 ikasturtean ikasleak barnetegian onartzeari buruzkoa.*

Hezkuntza eta ikasketa-askatasuna herritar guztioi dagokigun eskubidea da, eta Botere Publikoen obligazioa da hezkuntzara berdintasun-egoeran sartzeko gerta daitezkeen mugapen edo desorekei aurre egiteko neurriak hartzea.

Eibarko Hezkuntza Esparruan bada Egoitza Zentro bat, eta modua ematen du ikasketa jakin batzuk familia-egoitzaren tokitik kanpo egiten dituzten ikasleei eskaintza bereziki egokia egiteko.

Otsailaren 22ko 24/2011 Dekretuak 164/2002 Dekretua aldatzen du, zeinaren bidez zehazten baita Eibarko Egoitza Zentroa sortu eta Eibarko Hezkuntza Esparruaren administrazio- eta antolakuntza-egitura. 24/2011 Dekretu horren arabera, Hezkuntza Saileko Ikastetxeen zuzendariaren ebazpen batek arautuko ditu honako hauek: nola onartu ikasleak Eibarko Hezkuntza Esparruko egoitza-zentroan eta nola aurkeztu eskabideak eta zein epe eta modutan, zer dokumentazio erantsi behar zaien eskabideei eta zein epetan emango diren.

Horretarako, eta 164/2002 Dekretuaren 19. artikuluekin bat etorritik, betiere, hau

#### EBAZTEN DUT:

1. artikulua.— Eskabideak aurkezteko epea. Hona egoitzan tokia eskatzeko epeak: lehenengoa, uztailaren 3tik 24a arte (egun biak barne); bigarrena, berriz, abuztuaren 28tik irailaren 7a arte (egun biak barne). Ebazpen honen eranskinean zehazten da egutegi osoa.

2. artikulua.— Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzek edo deialdi honen xede den egoitza-zentroak ematen dituen inprimakietan egin beharko dira eskabideak. Inprimaki horietan jasotzen da zein datu eman behar dituzten eskatzaileek eta zein dokumentu aurkeztu. Aipaturiko inprimakian eskaerari erantsi behar zaizkion dokumentuetako erlazioa jasotzen da.

3. artikulua.— Inprimakian behar izandako eskaera eta dokumentazioa Eibar Egoitza Zentroan aurkeztuko da, Administrazio Publikoen Araubide Juridikokoaren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurrez ikusitako lekuetan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuan datozenetan.

Eskaera posta-bulego batean aurkeztea aukera dezanik egotekotan, irekiren gutun-azalean egingo da, posta funtzionarioak ziurtatu baino lehen eskaera data eta zigilua ipin dezan.

Eskaerarekin batera, eskabide-orrian eskatutako dokumentazioa aurkeztu behar izango da.

Otsailaren 22ko 24/2011 Dekretuaren 20. artikuluen arabera, 2016-2017 ikasturtean Egoitza Zentroan egon diren pertsonak eskaera aurkeztetik salbuetsita egongo dira, baldin eta aipaturiko ikasturtean matrikulatuta egon ziren ikastetxeko egonaldiko baldintzak betetzen badituzte eta 2017-2018 ikasturterako matrikula egin badute. Pertsona hauek automatikoki onartuak izango dira Egoitza Zentroan.

4. artikulua.— Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erki-dearen Legeak esaten duen bezala, 68. artikuluan, prozedura hasteko eskabidean betetzen ez badira, interesdunari eskakizuna egingo zaio hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak eramateko. Era berean, jakinarazi egingo zaio, horrela egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, horretarako ebazpena 21. artikuluan jasotako moduan eman ondoren.

Eskaera Egoitza Zentroan egiten bada, errekerimendu honen aurkezpena, une berean egin ahal izango da. Eskaera aurkezten duen pertsonak, eskakizun honen harrera idatzizko ordainagiria utziz.

5. Artikulua- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonalen Fitxategi Publikoei eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, deialdian parte hartzen dutenek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko. Datuok, bestalde, fitxategi batean sartuko dira, diru-laguntzen deialdi hau eta beronekin zerikusirik duen beste edozein prozedura edo administrazio-espediente kudeatzeko, bai eta deialdira biltzen direnei deialdiaren garapenaren berri emateko ere. «Ikasleak onartzea» izeneko fitxategiaz Ikastetxeen Zuzendaritza arduratuko da. Datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka egiteko eskubideez baliatzeko, Ikastetxeen Zuzendaritzara jo beharko da, honako helbide honetara: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Era berean, deialdi honetara biltzen diren lagunak baimena ematen dute fitxategian jasotako datu pertsonalak Euskal Autonomia Erkidegoko beste herri-administrazio batzuei lagatzeko, deialdiaren xedearekin bat datozen helburuetarako. Halaber, baimena ematen diote Ikastetxeen Zuzendaritzari beste erakunde publiko batzuetan egiaztatu dezan aurkeztutako dokumentuek diotena.

#### AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Ikastetxeen zuzendariaren ebazpen honen kontra, gorako errekurtsua jarri ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuordeari hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

#### AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko otsailaren 13a.

Ikastetxeetako zuzendaria,  
JESÚS FERNÁNDEZ IBÁÑEZ.

## ERANSKINA

## EIBARKO EGOITZA ZENTROAN IKASLEAK ONARTZEKO PROZEDURAREN EGUTEGIA, 2017-2018 IKASTURTERAKO.

## 1.– Ohiko deialdia.

|                                                           |                                     |
|-----------------------------------------------------------|-------------------------------------|
| Eskabideak eta dokumentazioa aurkeztea                    | Uztailaren 3tik 24ra bitartean      |
| Behin-behineko zerrendak argitaratzea                     | Uztailaren 28an                     |
| Behin-behineko zerrenden kontrako erreklamazioak jartzea  | Abuztuaren 4a arte, egun hori barne |
| Behin betiko zerrendak argitaratzea                       | Abuztuaren 11n                      |
| Behin betiko zerrenden kontra gorako errekurtsoak jartzea | Irailaren 12a arte, egun hori barne |

## 2.– Ohiz kanpoko deialdia.

|                                                             |                                      |
|-------------------------------------------------------------|--------------------------------------|
| Eskabideak eta dokumentazioa aurkeztea                      | Abuztuaren 28tik irailaren 7ra       |
| Behin-behineko zerrendak argitaratzea                       | Irailaren 15ean                      |
| Behin-behineko zerrenden kontrako erreklamazioak jartzea    | Irailaren 22ra arte, egun hori barne |
| Behin betiko zerrendak argitaratzea                         | Irailaren 29an                       |
| Behin betiko zerrenden kontrako gorako errekurtsoak jartzea | Urriaren 30a arte, egun hori barne   |